

# Hamaika



JOSEBE BLANCO  
ARTZAINA



DOM CAMPISTRON

**E**z dakit zure herrira helduko den *Hamaika* diziplina anitzeko proiektu artistikoaren erakusketa.

Artelanekin batera, hamaika lekukotasun. Bertan denetarik dago: beldurra, mina, amorrua, esperantza, etsipena, indarra... Maitasunez idatzitako testigantzak. Garondoan mehatxuaren hatsa sentitzen duenaren itomenaz bizi diren pertsonenak. Aerosorgailuen mamuekin bizi dira, denak ere.

Batzuek isilpean gordetzea nahiko lituzketen horietaz aritu ginen hiru emakume erakusketaren aurkezpenean. Entzuleen artean, emakumeak ziren gehienak. Kasualtaterik ez dago.

Zer gertatu zen gure etxeetan makroproiektu eoliko horren berri izan genuenean? Nolako leherketa gertatu zen? Zer hautsi zen lehenago, bihotza ala etorkizuna? Zer oinarri dira sendoagoak, lurra ematen dizkizunak ala alderdienak? Zerk salba zaitzake, neurrira egindako legeak ala justizia poetikoak?

Izaren azpian, malko uholdeak itotzen dira bertan, erreskaterako zodiaka etortzeko inongo esperantzarik gabe. Hortik aurrera mamu izaera hartzen duzu. Koa-

dro zaharrak estaltzeko erabiltzen diren oihalek ezkutatu dituzte bizi dituzun naufragioak.

Saiatzen zara heldulekuak topatzen. Udaletxean. Lagun abokatuaren bulegoan. Interneten. Han, nonbait, bada talde bat. Posta elektronikoak. Deiak. Telegram taldeak. Eta bilerak. Naufragoen arteko bilerak, itsaso arrotz zabalean. Eskerrak heltzen zaituzten esku horiei, ur horietan igerian eta urpekaritzan erakusten dizutenei.

Aldi berean, egun batetik bestera, herrian, zeure bizitza *standby* egoeran sartzen da, ez zaude itzalita, baina ezta *operatibo* ere. Hor, linboan.

Hasten dira zeharkako begiradak, izarapeko naufragoa zarela gogorarazten dizutenak. Ardi beltz sentiarazten zaituzten isilpeko iruzkinak. Derrepentean, ikasi behar duzu gaiaz ezin dela hitz egin, desegokia dela Aste Santuan Loiotik ateraren 1.398 hegaldi horiek kritikatzeari; larrialdi klimatikoaren aurrean politikariek erakusten duten axolagabekeria salatzen Rebeldión Científica taldeak eginitzek bake soziala apurtu egiten dutela. Euskal Herrian dauden makro-

proiektuen kontrako taldeen hitzek eta presentziak egiten duten moduan.

Gerora dator isiltasuna. Muga ikuzezina sortu da bion artean. Usnatzen dituzun mugimenduak zeure buruan baino ez daudela sinestera heltzen zara; bilera eta akordioen emaitzen berri duzun arte.

Bi aldiz hautsi zara, eta bietan milaka pusketatan.

Behin, maite duzun lurraldearen suntsiketaren mamuek emandako kolpeaz. Hautsi egin zaituzte. Zorrotza da mina. *Solastalgia*k batu ditu puskak.

Bigarrean, maite duzun komunitate edo taldearekiko hausturak xehatu zaitu. Birrindu egin zaituzte. Obra-hondakina, emaitza. Hautsa haizeak eraman du, hiletetan bezala.

Eta inork ez dizu erantzuten aspaldian eginiko galderari: bizi dituzun haustura horiek zenbat megawatt balio dituzte? Galdera poetikoa omen da; hots, ez serioa, alferrikakoa.

Eskerrak naufragoen biltzarrak erreskatatuko zaituen.

Eta arteak izara erantzi dizun, behin-goz mamu izateari uzteko. ●